

Negoiazioa

Ikusi al dituzu inoiz bi itzultzaile eztabaidan? Hala bada, jakingo duzu Telecircoko arratsaldeetako berriketarien pasioz jardun daitezkeela, hitz baten edo bestearen aldeko argumentuak bota eta bota. Badakite egiten dituzten hautuak subjektibitatearen produktu direla, baina, hala ere, nor bere hitzari euste-ko ohitura du. Ez dira negoziatzaile trebeak. Itzulpengintza ikasi nuenez, ni ere mundu horretako kide naiz, eta, beraz, badakit lanbidearen parte dela etengabe hautatzen ibili, eta gero hautu horiek defendatzea. Zer esango dizuet, poz-antzean egoten gara horrela, gure mikromundu *friki* samarrean, anfiteatroaren inguruan baina sekula ez taula gainean.

Duela gutxi, ordea, fokuak bete-betean harrapatu gaitu.

Flash.

Martxoaren hasieran, Herberehereetan piztu zen eztabaida. Hemen duzue laburpen motz-motza: Joe Biden presidentearen kargu-hartzean, Amanda Gorman poeta afro-amerikar gazte-

ak *The Hill We Climb* poema errezitatu zuen, eta bat-bateko fama eskuratu. Haren lana itzultzeko, Marieke Lucak Rijnveld poeta zuri eta ez-binarioa aukeratu zuen Meulenhoff argitaletxeak. Handik gutxira, Janice Deul kazetari eta aktibista arrazializatuak hautu hori salatu zuen, emakume poeta arrazializatupei aukera hori ez eskainita, horien ikusgarritasunaren alde egiteko «aukera galdu» zela-eta. 2021eko martxoan, Rijnveldek uko egin zion lanari. Handik gutxira, itzulpen lanetan ari zen Victor Obiols itzultzaile katalanari betoa ezarri zion Univers etxeak, «profil desegokia» zuela-eta. Gerora, Obiols iruzkin desegokiak egin ditu, tartean, hurrengo itzulpeneko betuna erosiko duela esanez.

Hortik aurrera, hankaz gora jarri da itzultzaileon mundua. Bat-batean, plaza publikoaren erdian aurkitu dugu geure burua. Telecircoko arratsaldeak motz geratu dira: alde batean izan ditugu zakil ximel erretxinduak, jada ezin izango dela ezer itzuli esanez, eta postmodernitate madarikatuz; beste aldean, itzulpen kontuetan



Edward Said arte kritikari eta aktibista, Antonio Gramsci filosofoa eta Amanda Gorman poeta eta aktibista. ANE GARCIA

idazle eta itzultzaileek identitate partekatu behar dutela uste dutenak, ezaugarri identitarioetan erabat gotortuta. Eta erdian, besteak beste, asmo oneko itzultzaile zuri, feminista, euskaldun eta ez-kertiarrak, harrotutako hautsekin ez tulka.

Ertz askoko eztabaida da, eta zutabe hau motz geratuko zait argudio eta ondorio bakoitza behar bezala aletzeko. Modu erabat simplistan esanda, ez dago gaizki pertsona arrazializatuak itzultzea zuria izanda; baina itzulpengintza ere sistema patriarkal eta arrazistaren barruan dagoenez, kontuan izan behar dugu botere-dinamikak eta pribilegioak egon badaudela hor ere, eta itzultzaile arrazializatuak (eta emakumeak) bazter geratzen direla sarri, ikusgarritasunik gabe.

Batzuek argudiatu dute eztabaidak ez zuela zentzurik euskarzko itzulpengintzan, ez baitago itzultzaile arrazializaturik. Ez dugu geure burua ezbaian jarriko. Puntu. Erresistentzia horrek pentsarazi dit ez dela halakorik ikusten dudana lehen aldia: kultur arloan egon diren ikusgarritasun eta identitatearen inguru-

ko beste tirabira batzuetan ere ikusi dudalako jarrera hori. Hala, ondorio orokor hauetara heldu naiz:

Batetik, identitate eta pribilegioak ukitzen dituzten eztabaidak sortzen direnean, gizartearen sektore feminizatuek hartu ohi dute korapiloak askatu eta haien jardunak zalantzan jartzeko ardurua (emakume* musikariek galdetu, adibidez).

Gizonek, orokorrean, lasai antzean jarraitzen dute jardunean, «gauza serioak» egiten, eta ez «politikarekin» eta «ideologekin» arduratuta. (Ezer kuestionatu gabe

zure jardunean jarraitzeko aukera edukitzeari pribilegio deitzen zaio).

Bestetik, euskalduntasunak arrazakeriatik libratzen gaituelako ustea zabaldua dago gurean. Zapalkuntzaren diskurtso kulturala barneratuta daukagu, eta uste dut hortik enpatizatzen dugula beste zapalkuntza batzuekin. Hori ez da txarra, baina zapalkuntza bakoitzaren nabardurak ezabatzeo arriskua dakar. Izan ere, euskaldunak izanagatik zuri eta mendebaldarrak ere bagara gutako asko, eta

gure herriak badu iragan kolonialista ere. Gainera, gure demografia aldatzen ari den honetan, eta datozen urteetan euskaldun arrazializatuen kopuruak (zorionez) gora egingo duela aurreikusita, susmoa dut gure identitatearen ertz pribilegiatu eta marjinalen artean negoziatu beharko dugula gure izana, ezinbestean.

Igande baterako gai astunegia da hau, badakit. Horregatik, izugarri gustatzen zaidan aipau batekin amaitu nahiko nuke. Antonio Gramsck zioenez, «lanketa kritikoaeren abiapuntua da norbera benetan zer den jakitea: 'nork bere burua ezagutzea' orain arteko prozesu historikoaren produktu gisa, horrek zugar arrasto zenbakaitzak utzi baititu, inbentariok egin gabe. Inbentario hori, beraz, hasieran egin behar da». Horri Edward W. Saidek gehitu zion ariketa hori ez zela besterik gabe egin behar, ez eta norbere historia besterena baino hobe eta oke-rragoa zela frogatu, edota elkarririk *biktima* edo *menperatzaile* etiketak jartzeko ere. Saidek zioenez, ariketa horren helburua nagusia beste norbait bilakatzeko: diferentzia ukatu gabe, norbere identitatean besteak barne biltzea.



LAUHAZKA
Ane Garcia